**ERABAKIA, 2019ko UZTAILAREN 3koa, UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN ARABAKO CAMPUSEKO ERREKTOREORDEARENA, CBI@BASQUE COUNTRY UNIVERSITY ARABA PROGRAMARAKO DEIALDIA ONARTZEKO.**

UPV/EHUko Arabako Campuseko Errektoreordetzak kultura ekintzailea bultzatzeko garatzen dituen jardueren artean, INIZIA Araba Campus programa dago. Unibertsitateko kideei zuzenduta dago eta helburua da horien artean ekintzaileak bultzatzea, ekintzaileoi aholkua eta laguntza ematea, baita berritzaileak diren eta oinarri teknologikoa duten enpresak sortzen laguntzea ere.

Arlo honetan eta programa honen barruan, Arabako Campuseko errektoreordetzak, Garapeneko zuzendaritza bitarte eta Arabako enpresa eta berrikuntza gunea (BIC Araba) lankide izanik, biziki interesgarri deritzo ikasleei ekimenaren arloko jakintza zabaltzeko bidea eskaintzeari, bai eta komunitate zientifikoak egindako lanera hurbildu eta erakutsi ere.

Honen ondorioz, sortu da Cbi@Basquecountry University Araba Campus programa, ikasleei CERNeko Partikulen Fisikako Europar Laborategiko fisikari eta ikertzaileek Ginebran (Suitza) garatutako azken teknologiak bertatik bertara erakusteko helburuaz.

Programa honetan parte hartzeko hautatuko diren ikasleek tresna baliagarriak eskuratuko dituzte, garapen jasangarrirako helburuetan (GJH) eragin positiboa izango duten ideiak eta proiektuak sortzeko.

Horregatik eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak eta eskumenak eskuordetzeko 2017ko urtarrilaren 25ean sinatutako erabakiak agindutakoaren arabera

**ERABAKI DUT**

**LEHENENGOA.** Onestea CBI@BASQUECOUNTRY University Araba Campus programaren deialdia.

**RESOLUCIÓN DE FECHA 3 DE JULIO DE 2019 DEL VICERRECTOR DEL CAMPUS DE ÁLAVA DE LA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA POR LA QUE SE APRUEBA LA CONVOCATORIA DEL PROGRAMA CBI@BASQUE COUNTRY UNIVERSITY ARABA**

Entre las actividades que el Vicerrectorado del Campus de Álava de la UPV/EHU viene desarrollando para el fomento de la cultura emprendedora, se encuentra el programa INIZIA Araba Campus. Este programa, dirigido a la comunidad universitaria, tiene por objeto fomentar, asesorar y apoyar a las personas emprendedoras, así como a la creación de empresas innovadoras y de base tecnológica dentro de la comunidad universitaria.

En ese sentido, y dentro del citado programa, el Vicerrectorado del Campus de Álava, a través de su Dirección de Desarrollo y en colaboración con el Centro de empresas e Innovación de Álava (BIC Araba), considera de gran interés ofrecer al alumnado vías para ampliar sus conocimientos en materia de emprendizaje así como acercarles y mostrarles el trabajo realizado por la comunidad científica.

Fruto de ello nace la idea del programa CBI@BASQUECOUNTRY University Araba Campus, a fin de dar la oportunidad al alumnado de conocer en primera persona las últimas tecnologías desarrolladas por físicos e investigadores del CERN, el Laboratorio Europeo de Física de Partículas situado en Ginebra, Suiza.

El grupo de estudiantes seleccionado participará en un programa de formación que le proporcionarán las herramientas necesarias para la generación de ideas y proyectos que causen un impacto positivo en los ODS (Objetivos de Desarrollo Sostenible).

Por ello, y en virtud de lo dispuesto en la Resolución de 25 de enero de 2017 de la Rectora de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, sobre estructura y determinación de las áreas de funcionamiento de su equipo de gobierno y de delegación de competencias

**RESUELVO**

**PRIMERO.-** Aprobar la convocatoria del Programa CBI@BASQUECOUNTRY University Araba Campus.



ARABAKO CAMPUSA
CAMPUS DE ÁLAVA
Comandante Izarduy, 2
01.006 Vitoria-Gasteiz
T: 34 945 01 3000

**BIGARRENA.** - Onestea deialdi hau artezteko oinarriak, honako erabaki honi atxiki zaizkiolarik.

**HIRUGARRENA.** - Agintzea deialdia eta berorren arauak Arabako Campuseko iragarki taulan argitara daitezen, baita UPV/EHUko iragarkien taula korporatiboan ere, eta UPV/EHUren webgunean guztien eskura jar dadin.

**LAUGARRENA.** - Administrazio bidea agortzen duen erabaki honen aurka eta berorren oinarrien aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal zaio erabakia hartu zuen organoari, hilabeteko epean, jakinarazpenaren biharamunetik aurrera kontatzen hasita. Edo, bestela, zuzenean aurkeztu ahal da administrazioarekiko auzi errekurtsoa kasuan kasuko administrazio auzietarako epaitegietan, bi hilabeteren epean, jakinarazpenaren biharamunetik aurrera kontatzen hasita (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legearen 123. eta hurrengo artikuluak eta Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 46. artikulua).

Vitoria-Gasteizen, 2019ko uztailaren 3an.

**SEGUNDO.**- Aprobar las bases reguladoras que regirán la presente convocatoria, y que se adjuntan.

**TERCERO.**- Ordenar la publicación de la convocatoria y sus bases en el tablón de anuncios del Campus de Álava, así como en el Tablón de anuncios corporativo de la UPV/EHU, y su puesta a disposición en la página web de la UPV/EHU.

**CUARTO.**- Contra la presente resolución y sus bases, que agotan la vía administrativa, podrá interponerse recurso potestativo de reposición en el plazo de un mes desde el día siguiente al de su publicación ante el mismo órgano que lo dictó, o bien directamente, recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo correspondientes en el plazo de dos meses a contar, igualmente, desde el día siguiente al de la publicación (artículos 123 y siguientes de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, Regulador de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa).

Vitoria-Gasteiz, 3 de julio de 2019.

UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO
VICERRECTORADO CAMPUS ALAVA
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA
ARABAKO CAMPUSA ERRETORORDETZA

Sin./Fdo.: Iván Igartua Ugarte
Arabako Campuseko errektoreordea
Vicerrector del Campus de Álava



ARABAKO CAMPUSA
CAMPUS DE ÁLAVA
Comandante Izarduy, 2
01.006 Vitoria-Gasteiz
T: 34 945 01 3000